

Nora joan da aitona?

Ainhoa Urzelai Vicente

MHLI ikertaldea

UPV/EHU

Laburpena: Iruzkin labur honetan Alaine Agirre idazleak eta Maite Gurrutxaga ilustratzaileak sortutako *Nora joan da aitona?* (Elkar, 2014) ipuinaren azterketa egingo dugu. Hala hitzei nola irudiei erreparatuko diegu, bien arteko uztarketak egiten baitu eder aztergai dugun obra hau. Iker gaztea dugu istorio honetako protagonista zein narratzaile autodiegetikoa eta fokua mutikoarengan zein bere aitonarengan jarriz bilbatzen da narrazio guztia. Azken hori txikitzen ari da, gero eta baldarragoa da eta gainera, gauzak ahazten hasi da. Egileek denboraren joanari, zahartzaroari eta heriotzari buruzko istorio ederra eskaintzen digute ipuin honetan.

Gako-hitzak: Euskal Haur eta Gazte Literatura, zahartzaroa, alzheimerra, heriotza.

Egileen gaineko informazioa

Alaine Agirre (Bermeo, 1990) idazlearen hitzez eta Maite Gurrutxaga (Amezketan, 1983) ilustratzailearen irudiz hornituta dagoen obra laburra da *Nora joan da aitona?* eta denboraren joanaz, zahartzaroaz eta heriotzaz mintzo da, betiere Iker haurraren ikuspuntutik. Idazleari dagokionez, azpimarratzekoa da gaztea izan arren obra oparoa duela Alaine Agirrek. Haur eta gazte literaturan eman zituen lehenengo pausoak, Eider Eibar ilustratzailearekin batera 2013an argitaratutako *Nire potxolina maitea* (Elkar, 2013) ipuinarekin. Horren ostean, irakurle gazteenei zuzendutako beste sei obra plazaratu ditu (beste idazle batzuekin elkarlanean idatzi dituenak kontuan hartu gabe), tartean Iratxe Lopez de Muniain ilustratzailearekin batera sortutako eta haur literaturako Xabier Lizardi saria eskuratutako *Hau ez da zoo bat!* (Elkar, 2015) edo Maite Gurrutxagarekin batera ondutako *Martin* (Elkar, 2016) obra, 2015eko Lazarillo saria eskuratu zuena album ilustratuen atalean. Bestalde, irakurle apur bat helduagoari zuzendutako beste horrenbeste obra argitaratu ditu Agirrek eta bereziki azpimarragarriak dira *X hil da* (Elkar, 2015) eleberria, zeinarekin 2016ko Zilarrezko Euskadi Saria irabazi baitzuen eta amari eskaintako *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* (Elkar, 2017) narrazioa. Azken hori ontzeko eta argitaratzeko Joseba Jaka Literatur Beka eskuratu zuen 2016an, euskal literatur eremuan belaunaldi gazteentzako literatur plataforma interesgarria bihurtu den sorkuntza beka, ez bairik gabe. Ezin aipatu gabe utzi momentura arte

argitaratutako bere azken lana: *Kamisoi zuri zetazkoa* (Erein, 2018) narrazio ilustratua, Sara Morante ilustratzailearen irudiak dituena. Poesian ere egin du bere ekarpena bermeotarrak, *Txoriak etortzen ez diren lekua* (Erein, 2017) poema liburu izugarria idatzi baitzuen duela urte gutxi. Izugarria da hain zuzen, kontuan hartzen bada idazleak ospitale psikiatrikoan egindako egonaldietan sortutako testuak direla, bermeotarrak idazkera gordinean ondutakoak alegia. Idazle gaztea izanagatik, zeresana eman duenetakoa dugu Agirre. Esan dezakegu azken hamarkadan toki nabarmena erdietsi duela bermeotarrak euskal letretan eta idazten hasi zenetik hona uzta oparoa eman duela. Helduei zuzendutako lehenengo liburua idatzi zuenean jada zenbait kritikarik aipatu zuten hasiera horrek literatur ibilbide interesgarri baten abiapuntua zirudiela (Rojo, 2014) eta idazleak egindako ibilbidea ikusita, argi dago aurreikuspen horiek zinez bete direla. Zalantza izpirik gabe baieztatu daiteke estilo propioa duela bermeotarrak. Miren Agur Meabe idazleak Agirrerren *Odol mamituak* (Elkar, 2014) liburuko hitzaurrean idazkera organiko-anatomiko gisa kalifikatzen du Agirrerren idazketa (Agirre, 2014: 14). Hau da, gorputzetik idazten du eta gorputzaren bidez adierazten du, emakumezkoek idatzitako literatur lan askotan bezala, gorputza bihurtzen baita patriarkatua gauzatzen den gunea (Rich 1996: 102). Oso ikusgarriak ez diren gai gogor eta gordinak jorratzen ditu Alaineek: mina, sufrimendua, eromena, beldurrak, ikara, maitasuna, obsesioa, pederastia, heriotza, bizitza edo gaixotasun(mental)ak besteak beste, eta horiei trataera berezia ematen die. Funtsean, barneko hersturak papererazten ditu, hori guztia hizkera eder eta estilizatua erabiliz, tarteka umore zertzeladez bustirik. Egileak berak aitortzen duen moduan (Kulturklik, 2015) beti izan du bere bizitza fikzionatzeko zaletasuna eta gaineratu behar da zaletasun bat baino gehiago, beharizan bat dela beretzat idaztea (Euskal Idazleen Elkarte, 2015). Amaia Alvarezek (2016) iradokitakoaren ildotik, esan genezake narrazio autobiografikoaren bidez bere burua biluzten duela Agirrek zenbait obratan eta berarentzat idaztea barrukoa askatzea dela, bizitza fikzionatzea, literatura bihurtutako auto-analisisa egitea. Bere barruan karrakatu eta askatutako zatiak fikzio bihurtzerakoan dohain berezia erakutsi du bermeotarrak. Hitza jartzen die barneko ezinegonei, baina batez ere, hitzak jartzen dizkie tabuei, izan ere, erakutsi egiten ditu gizartean nahiko ezkutuan eta bazterrean geratzen diren zenbait errealitate. Barrua astintzen duten gaiak jorratzen ditu, betiere idazkera landu eta literarioan. Diskurtso zintzoa darabil bere obretan, apaingarririk gabe, gordin eta zuzen, hau da, taburik gabe idazten du, erresistentzia idazkera bat da berea eta irakurlearen aurrean biluzten da. Horrez gain, indar handikoa da bere idazkera eta intentsitate handiz izkiriaturakoak dira bere obrak. Oro har, baina Haur eta Gazte Literaturan bereziki, sensibilitate handiz idazten du, samurtasunez. Bereziki deigarria da sinonimoen erabilera

baliatzen dela Agirre bere testuei indar handiagoa emateko. Bestalde, ez dira gutxi bere lanetan agertzen diren metaforak eta horrek guztiak orrietan aurki daitekeen hizkera poetikoa aberasten dute. Idazten duena idazten duela, zalantzarik gabe, literatura egiten du Agirrek.

Maite Gurrutxaga ilustratzaileari dagokionez, 2008an hasi zen liburuak irudiztatzen, Joseba Sarrionandiaren *Gau ilunekoak* (Elkar, 2008) obrarekin hain zuzen. Orduz geroztik euskal idazle ezagunen lanak hornitzen jardun da, besteak beste, Mariasun Landaren *Ipurtagiak paradisuari* (Elkar, 2010) eta *Maitagarria eta desioa* (Elkar, 2012) obrak, Juan Kruz Igerabideren *Txori txoroa* (Alberdania, 2011), Karlos Linazasororen *Zein beste mundukoa* (Elkar, 2008) eta *Bat batean krispetak* (Alberdania, 2011) lanak, Leire Bilbaoren *Euli bat dut bihotzean* (Elkar, 2013) edo Juan Luis Zabalaren *Zabaleko txorimaloa* (Elkar, 2011) obrak ilustratu ditu. Haur eta Gazte Literaturako zein helduen literaturako obrak irudiz hornitu ditu, baita diskoak, aldizkariak edo kartelak ere. Argitalpenez gain, azpimarratzekoa da hainbat aldiz izan dela saritua Gurrutxagaren lana. 2009an Etxepare Saria eskuratu zuen, Mikel Gurrutxagarekin batera sortutako *Alex, nire laguna* (Pamiela, 2009) album ilustratuarekin. 2014an Euskadi Literatura Saria poltsikoratu zuen Dejabu Panpin Laborategiarekin batera ondutako *Habiak* (Txalaparta, 2013) nobela grafikoarekin, eta urtebete beranduago, jada aipatu dugun moduan, Alaine Agirrerekin batera Lazarillo Saria irabazi zuen *Martin* (Elkar, 2016) obrarekin. Azkenik, aipatzekoa da Uxue Alberdirekin batera sortutako *Besarkada* (Elkar, 2015) lanarekin 2016ko Euskadi Literatura Saria saria irabazi zuela, Haur eta Gazte Literatura sailean.

Alzheimerra, demenzia eta heriotza euskarazko Haur eta Gazte Literaturan

Ezer baino lehen, aitortzekoa da *Nora joan da aitona?* ipuinean ez dela esplizituki esaten aitonak alzheimerra duela, eta beraz, irakurleak pentsa dezake demenzia ere izan litekeela. Hala ere, pista guztiek alzheimerra duela interpretatzera garamatzate. Biak ala biak, heriotzaren antzera, gai tabuak dira gure gizartean, eta zer esanik ez haurrekin ari garenean. Baina, zer gertatzen da literaturan? Ba al dute tokirik gai horiek Haur eta Gazte Literaturan? Euskal HGLn alzheimerrak izan duen presentziari erreparatzen badiogu, orriotan aztergai izango dugun *Nora joan da aitona?* obraz gain beste zenbait lanekin egingo dugu topo. Aukera guztiak agortzeko inolako asmorik gabe, jarraian datozen lerroetan horietako batzuk aipatu eta edukiaren gaineko azalpen labur batzuk emango ditugu. Batetik, J. M. Olaizola “Txiliku” idazlearen eta Eider Eibar marrazkilariaren *Malanjel pirata* (Elkar, 2009) ipuina dugu. Aitona Anjelek alzheimerra du eta bilobak hitz horren esanahia azaltzen du bere hitzen koadernoan. Horrez gain, aitonak gaixotasunaren ondorioz bizi dituen gorabeherak kontatzen

ditu (mediku-frogak adibidez) baina baita nola jokatzeko duen txikiak aitona gaixotasunaren aurrean. Bestetik, Verónica Van den Abeele idazlearen eta Claude K. Dubois ilustratzailearen *Amonak Alzheimerra...zer?* (Tarttalo, 2009) album ilustratua Katixa narratzailearen ahotik esplizituki jakinarazten zaigu bere amonak alzheimerra duela. Kontakizunak amonaren eta bilobaren arteko maitasun harremana ematen digu jakitera. Lehenengo orrietan, amonarekin pasatako uneak deskribatzen ditu neskatoak: nola joaten zen oporretan amonaren etxera, nola egiten zituzten erosketak elkarrekin, zer kozinatzen zuten, amonak bere adina zuenean zer egiten zuen, amonak zer kontatzen zion lokartzeko... Baina Katixak aipatzen duenez, egun batean amona izenak nahasten hasiko da eta baita gauzak tokiz nahasten ere. Hasieran amona txantxetan ari dela pentsatuko du neskatoak, baina gero konturatuko da amona gaixorik dagoela eta horrek eginarazten dizkiola gauza arraro haiek. Obraren azken orrialdeetan adierazten da amona ez dela gai bere burua zaintzeko eta laguntza behar duela. Hori horrela, garai batean amonak zaintzen bazuen txikia, orain Katixa izango da amonari jaten laguntzen diona, paseatzera ateratzen duena edo istorioak kontatzen dizkiona. Arantxa Iturberen eta Elena Odriozolaren artean sortutako *Amona basoan galdu zenekoa* (Elkar, 2005) ipuinean Maddi eta bere amona Eleni dira protagonista nagusiak eta haien arteko afektuzko harremana obra osoan antzematen da. Jakitera ematen zaigunez, azken hori onena da ipuinak kontatzen eta Maddik izugarri maite du amonaren altzoan eseri eta istorioak entzutea. Hala ere, noiz edo noiz, amonari ahaztu egiten zaizkio gauzak. Behin, *Txanogorritxoren* ipuina kontatzen hasi eta amona protagonista bezala galduta geratzen da basoan, ipuinean galduta, errealitatea eta fantasia bereizi ezinik. Amaiera aldera, amonak ez du gogoratu ere egiten zergatik deitzen dioten Txanogorritxo istorioko neskatoari. Ordurako amona ez da bere etxean bizi, “etxe berezi batean” (40) baizik. Ahanzturaren kontu hori aprobetxatuta, *Txanogorritxoren* hiru bertsio ageri zaizkigu obra berean.

2018an Jorge Gimenezek galizieratik euskarara itzuli zuen *Sinbad deitzen zidan* (Alberdania, 2018) obra, jatorriz Francisco Castrok idatzi eta Manel Cráneok ilustratutakoa. Izugarritzko arrakasta izan du, 30.000 ale inguru saldu dira galegoz (hizkuntza horretako Haur eta Gazte Literaturaren historian hirugarren salduena) eta liburua IBBYren Ohorezko Zerrendan sartu zuten 2012an. Alzheimerra da jorratzen duen gai nagusia, eta gaixotasun horrek familian duen eragina. Hamar urteko Paulo bilobaren begietatik dago osatuta narrazioa. Aitonak dena ahazten du eta mundu guztiari izena aldatzen dio, baita 10 urteko bilobari ere. Azken horrek jarrera ulerberaz, konplizitatez eta, batez ere, maitasun handiz jokatu du eta bera izango da nola jokatu asmatuko duen bakarra (Ibargutxi, 2018). Gai bertsuarekin lotuta, Juan Luis Mugertzak idatzi eta Txema Belaskok ilustratutako *Zer du*

aitonak? (Ibaizabal, 2010) obra aipa genezake. DBH-ko lehenengo mailan dagoen Peio mutikoaren eta bere aitona Luisen arteko harremanaren berri ematen zaigu istorio honetan. Obraren hasiera aldera jakitera ematen denez, aitonak profesionalek zaindutako hogeita lau orduko arreta behar du eta horregatik, familiak aitona zaharren egoitza batean sartzea erabakitzen dute, gogoz kontra hasieran. Aitona dagoen tokian egonda ere, Peio gaztea bisitan joaten zaio. Hura ospitalean dagoenean adibidez, aitona gelatik atera eta korridoreetan alde batera eta bestera ibiltzen dira. Beste batzuetan, aitonaren ondoan jarri eta herriko txutxumutxuak zein bestelako kontuak edesten dizkio. Bereziki azpimarragarriak dira eskutitz eran datozen azken bi orrialdeak. Haietan aitona mintzo da eta hartzaileari pazientzia izan dezan eta bere erorialdia uler dezan eskatzen dio: “Zahartzen baldin banaiz eta betikoa ez baldin banaiz, izan pazientzia eta ulertu [...] ez egon triste honela ikusteagatik, eman zure bihotza eta ulertu. Zure ibilbidearen hasieran lagundu nizun bezala lagundu neurea bukatzen” (82-83). Gutuna irakurri ostean malko batek ihes egiten dio mutikoari, baina horrekin batera, irribarre bat marrazten zaio aurpegian, izan ere, “maite ditugun pertsonak ez dira inoiz hiltzen” (83). Harkaitz Canok eta Antton Duesok ondutako *Aitona eta euria* (Baigorri, 2005) obran Hodei txikiak aitonaren gorabeherak kontatzen ditu. Behin gauza arraroak egiten eta gauzak ahazten hasi zen aitona eta tarteka, gorantz begira geratzen zen. Noizean behin desagertu egiten zen, eta itzultzen zenean, ez zituen etxeakoak errekonozitzen, ezta bizitokia ere. Hodei bilobak aitona onartzen du, izan ere, “denok ditugu gure gauza arraroak eta gure mania arraragoak. Ez da hainbesterako ere” (31). Azkenik, ahanzturaren gaia presente dago ere Mariasun Landak eta Mikel Valverdek ondutako *Berri ona* (Baigorri, 2003) ipuinean. Bertan, Olentzero, urte osoa Gau Handiaren zain igaro ostean, menditik jaitsi eta berri ona ematera irten behar da mundura. Hala ere, Olentzerori ahaztu egiten zaio berria zein den eta saiatu arren ez du gogoratzea lortzen, harik eta hegan doazen antzarek zeruan *eguberri* hitza marrazten duten arte.

Nora joan da aitona? ipuinaren analisia

Ipuin errealista honen azterketan sartu aitzin, aipatzekoa da 2017an Xabier Mendiguren Elizegik, La Topera argitaletxearen eskutik, gaztelaniara itzuli zuela obra, *¿Dónde ha ido el abuelo?* izenburupean. Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da idazleak bere aitona-amonei eskaintzen diela ipuina, obraren azal-hegalean aitortzen den moduan, horiek baitira idazteko azkura eman diotenak. Ez hori bakarrik, ezin aipatu gabe utzi istorioa bera aitona-amonekin estuki lotuta dagoela. Berrogei orrialdeko lana da eta gizartean oso presente dagoen gai bat erdigunean jarri dute egileek obra honen bitartez. Iker mutikoa dugu istorio honetako

protagonista zein narratzaile autodiegetikoa eta fokua mutikoarengan zein bere aitona Inaxiorengan jarriz bilbatzen da narrazio guztia. Zentratasun hori paratestuan ere antzematen da, izan ere, hala azaleko irudian nola atzeko azaleko irudian biak ageri zaizkigu. Era paraleloan kontrajartzen diren bi pertsonaia nagusiren bilakaeraren berri izango du irakurleak. Batetik, horman marraztuta dauden altuera desberdinetako marratxoek dioten bezala, Iker mutikoa handitzen ari da poliki-poliki; baina bestetik, aitona txikitzen ari da, nahiz eta adinean aurrera joan (5). Protagonista ez da bere inguruan gertatzen diren zenbait gauza ulertzeko gai, adibidez, zergatik dioen amonak aitona higatzen doala urteen joanarekin (5), zergatik esaten duten amonak eta gurasoek aitona burua galtzen hasita dagoela (9) edo zergatik egiten duen negar amonak (26). Horrez gain, ez du konprenitzen aitonak zergatik hartu behar duen pilula bat urrunera begira geratzen den bakoitzean (7). Zaharren egoitzara bisitan joaten direnean, aitonak ez du biloba ezagutzen eta jolasean ari dela pentsatuz, haren jokoa sartzen da Iker. Hori horrela, aitonaren gaztetako lagun Rodolfo dela antzezten du txikiak (8). Horrela ba, denboran atzera bidaiatuz, iraganeko kontuak edesten dizkio Ikerri, bertan momentuan bizi balitu bezala (8): nola joaten ziren Ogoñora erbiak ehizatzerako edo nola eramaten zituzten ardiak Izarora (25).

Gaixotasunaren ondoriozko jokabide horiez gain, ipuinak aitonaren makaltzea jartzen du agerian. Hasieran, aitonaren oinak baldartzen joan zirela kontatzen digu Ikerrek eta erori gabe ibiltzeko bastoiaren beharra bazuen ere, muzin egiten ziola makila erabiltzeari. Hala ere, eskolako txango batean Ikerrek zuhaitz adar bat hartu zuen eta makila harekin ibiltzen zen gora eta behera. Orduan onartu zuen aitonak makulua erabiltzea (18). Handik gutxira, makilaren laguntza nahikoa ez zenean, aitonari taka-taka erosi zioten, baina horrekin ere jokabide bera izan zuen aitonak: tramankulu horren eskaintzari istiluka eta kexaka erantzun zion, harik eta biloba taka-takarekin jolasten ikusi eta hura erabiltzea onartu zuen arte (21). Azkenik, aitonak gorpil-aulkiaren beharra zuenean, ez zuen hura erabiltzea onartu Iker ibilgailu harekin gora eta behera ikusi arte (22). Ipuinean argi azaltzen da txikiak aitonarengan izugarritzko eragina duela. Beste pasarte batean ikus daitekeenez, aitonak jateari muzin egiten dionean, Iker da aitona konbentzitzen duena eta jaten ematen diona (28). Funtsean, aitonaren eta bilobaren arteko maitasun eta konplizitate-harremana da orriotan azaleratzen dena, bien arteko harreman estua alegia. Batetik, Iker txikia zeneko gertakizunak deskribatzen dizkigu narratzaileak: nola joaten zen aitona Ikerren bila eskolara eta azken horrek nola egiten zion harrera musuka (11-12) edo nola jaten zuten izozki bana ezkutuan amamarenera bazkaltzera joan aurretik (13). Bestetik, aitona gaixotzen denean, txikia da hura mimatu eta harekin dibertitzen dena, aitonaren ateraldiei jarraikortasuna emanez adibidez (9, 28). Azken finean,

aitonak haur baten jokabidea erakusten du eta beraz, Iker haurra da hobekien ulertzen duena. Iker ez bezala, ingurukoak aitonaren gaixotasunaren jakitun dira, eta beraz, errukiz jokatzeko dute. Baina txikia ez da egoeraz jabetzen eta, ume baten xalotasunarekin, egoera berrira moldatzen da. Esandakoari estuki lotuta, bereziki azpimarragarria da ipuinaren hasieran ageri den marrazkia (6). Bertan, besaulkian eserita dagoen aitona eta biloba ageri zaizkigu, adi-adi elkarri begira, pozik eta aldarte lasaian. Aitonaren atzean berriz, erizain pare bat, Ikerren ama eta amona ageri dira, bizkarra emanez eta goibel. Ildo beretik, aipatzekoa da aitona eta biloba batera agertzen diren irudietan pozik eta lasai ageri direla biak ala biak (8, 9, 14). Istoriotan ikus daitekeenez, noiz edo noiz, aitonari ezagumena edo zentzutasuna itzultzen zaionean eta bere biloba ezagutzen duenean, begiak malkoz bustitzen zaizkio eta Iker bertan egoteaz pozten da (10). Halakoetan, Ikerrek besarkada batekin erantzuten dio, maite duela belarrira xuxurlatuz (10). Beraz, afektu adierazpen esplizituak ez dira falta istorio honetan. Lehenago aipatu ez badugu ere, zenbait pasartetan etorkizun hurbilean Iker mutikoak izango dituen aldaketa fisikoak aipatzen ditu aitonak, betiere joko eran. Besteak beste, ahotsaren tonua jaitea sugusa jan eta hezurra eztarrian itsatsita geratzearen ondorio gisa deskribatzen du (12-13), edo saman zintzur-sagarra irtetea izozki bat jatean hezurra eztarrian itsatsita geratzearekin (13-14).

Irakurle helduak istorioaren amaiera aurrean dezakeen arren, agian irakurle gazteenek ez dute esperoko egileek ematen dioten amaiera. Esan gabe doa aitona hil egiten dela, baina gertakari hori naturaltasun handiz eta oso modu ez-tan azaltzen da. Ikerrek berak deskribatzen duen legez, burua burkoan bermatu eta begiak itxi ondoren ematen du azken hatsa, besaulkian eserita eta bilobaren aurrean (30). Jarraian, ipuinari izenburua ematen dion pasartea dakusagu. Helduak, txikiari aitonaren heriotzaren berri emateko, "aitona joan egin da" eufemismoaz baliatzen dira eta ondorioz, txikiak ez du ulertzen nora joan den hainbeste maite duen aitona (32). Era berean, hileta-elizkizunean ez du aditzen zergatik ari den jendea hasperenka eta negar-zotinka (33). Halaber, ez du entenditzen zergatik ez den aitona inon ageri, bera agurtzeko bildu badira guztiak (34). Istoriari bukaera emateko, portuan ematen diote azken agurra aitonari, errautsak itsasora botata. Orduan bai, txikiak ulertzen du, azkenean, nora joan den aitona, baina ohartzen da ahazten ez dena ez dela sekula hiltzen eta Izarora begiratzea besterik ez duela aitonarekin akordatzeko (36).

Itsasoa ahotan hartu dugula, aipatzekoa da istorioari itsaso usaina dariola. Batetik, narrazio guztia Bizkaiko kostaldeko Bermeo herran girotuta dago (24). Protagonistak ezetz esaten duenean ere, Mundaka eta Bakio herri kostatarren artean kokatzen du bere burua (15). Gainera, esaten zaigunez, aitona Ogoño lurmuturrera joaten zen erbiak ehizatzen bere lagun

Rodolfoekin eta Izaro uhartea ere hainbat aldiz aipatzen da (25, 30, 35). Ez hori bakarrik, aitona eta bilobak itsasoa ikusten dute itsasorik ikusten ez den leihotik (9), Ikerrek biziki maite du kai-muturretik aitonaekin paseatzea eta azken horren errautsak itsasora botatzen dituzte. Bestetik, paratestuari erreparatuta, irudi askotan arrainak eta itsasoa ageri zaizkigu. Maiz aitonaaren egoera psiko-emozionalaren adierazle edo metafora gisa uler daiteke. Gogora dezagun, itsasoa, ura, ispiluak... maiz erabili dituztela mundu literaturako idazle entzutetsuek pertsonaien eromena edo gaixotasuna aditzera emateko. Halaxe gertatzen zen, esaterako, euskal literaturako adibide bat aipatzearen, Julio Cortázarren ipuin ezagunetako fantasiari omenaldi egiten zien Bernardo Atxagaren *Obabakoak* (1988) liburuko *Klaus Hahn* ipuinean. Esan dezagun aitonaaren burua mare-magnum bat dela, zeina batzuetan bare dagoen, lasai; baina bestetan berriz, galernak harrapatuko balu bezala. Halakoetan, olatuek egiten duten antzera, badirudi alzheimerrek arrastan eramaten dituela bere oroitzapenak. Horrekin lotuta, zenbait iruditan itsasoa etxeko atetik sartu dela ikus daiteke (24, 29). Esanguratsua da, halaber, pare bat aldiz ageri den erlojua (8, 25), zeinak aitonaarentzat denbora geldi dagoela adierazten duen. Elementu paratestualekin amaitzeko, esan dezagun kolore beroak erabiliz sortuta dauden Maite Gurrutxagaren irudi finek indar iradokitzaile handia dutela ipuin honetan eta ez daudela testuaren apaingarri, haren osagarri baizik. Batetik, bikain islatzen dituzte Alaine Agirreren hitzak eta bestetik, hitzekin adierazten ez den informazio gehigarria azaleratzen da haien bidez. Labur-labur bada ere, Etxanizen (2015) ildotik, aipatzekoa da estilo errepikakor eta zaindua darabilela Agirrek eta konparazio poetikorik ez da falta, adibidez: “Begi urdin bietan itsaso bana zuelarik etorri zitzaidan amona” (31). Azkenik, aztergai dugun obrarekin amaitzeko, azpimarratzekoa da Agirrek eta Gurrutxagak denboraren joanari, zahartzaroari eta heriotzari buruzko istorio ederra ondu dutela. Goxotasun handiz, alzheimerren alderik alaiena islatzen dute (ahazte xebreak edo ateraldi barregarriak), baina baita gaixotasun horren alderik gordinena ere (kaltetutako pertsonaren etengabeko makaltzea eta nola ez, heriotza).

Erreferentzia bibliografikoak

Agirre, Alaine (2014), *Odol mamituak*, Donostia: Elkar.

Agirre, Alaine (2014), *Nora joan da aitona?*, Donostia: Elkar. [Ilust. Maite Gurrutxaga].

Alvarez, Amaia (2016), Biluztasunaren zikinkeria aldarri, *Argia*. Hemendik jaso:

<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2492/liburua>.

Cano, Harkaitz (2005), *Aitona eta euria*, Donostia: Baigorri. [Ilust. Antton Dueso].

Castro, Francisco (2018), *Sinbad deitzen zidan*, Irun: Alberdania. [Ilust. Manel Cráneo; Itzul. Jorge Gimenez].

Etxaniz, Xabier (2015), Hil ondoren..., *Gara*. Hemendik jaso: https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/gara_2015-01-24-06-00/hemeroteca_articles/hil-ondoren.

Euskal Idazleen Elkarte (2015), Alaine Agirre Garmendia, *Hitzen Uberan*. Hemendik jaso: <http://www.idazleak.eus/euskara/idazleak/alaine-agirre-garmendia/hemeroteca/pasio-handi-batek-ekarritako-ikarari-buruz-idatzi-nahi-izan-dut>.

Ibargutxi, Felix (2018), Alzheimerra, hamar urteko mutiko baten begietatik, *Diariovasco.com*. Hemendik jaso: <https://www.diariovasco.com/culturas/alzheimerra-hamar-urteko-20180918122343-nt.html>.

Iturbe, Arantxa (2005), *Amona basoan galdu zenekoa*, Donostia: Elkar. [Ilust. Elena Odriozola].

Kulturklik (2015), Alaine Agirre: «Beti izan dut neure bizitza fikzionatzeko zaletasuna». Hemendik jaso: <http://www.kulturklik.euskadi.eus/albiste/20160128101412/alaine-agirre-beti-izan-dut-neure-bizitza-fikzionatzeko-zaletasuna-/kulturklik/eu/z12-detalle/eu/>.

Landa, Mariasun (2003), *Berri ona*, Bilbo: Baigorri. [Ilust. Mikel Valverde].

Mugertza, Juan Luis (2010), *Zer du aitona?*, Amorebieta-Etxano: Ibaizabal. [Ilust. Txema Belasko].

Olaizola, Jesus Mari (2009), *Malanjel pirata*, Donostia: Elkar. [Ilust. Eider Eibar].

Rich, Adrienne (1996), *Nacemos de mujer. La maternidad como experiencia e institución*, Madril: Cátedra.

Rojo, Javier (2014), Infernuratzea, *El Correo*. Hemendik jaso: <https://kritikak.armiarma.eus/?p=6337>.

Van den Abeele, Verónica (2009), *Amonak Alzhei... zer?*, Donostia: Tarttalo. [Ilust. Claude Dubois; Itzul. Aztiri].

Artikulu honen iturria

Urzelai, A. (2019). *Nora joan da aitona?* In M. Neira, B. A. Roig, I. Soto (koord.), *Imaxenes Nenez-Vellez na Lix* (229-242). Vigo: Edicions Xerais De Galicia.